

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EIBARKO UDALA

211

IRAGARKIA, Zarata Mapari eta dagokion zonakatze akustikoari behin betiko onespena emateari buruzkoa.

Jakitera ematen da Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko urriaren 28an egindako bilkuran, erabaki hauek hartu zituela:

Lehenengoa.– Behin betiko onespena ematea Eibar udalerriko Zarata-Mapari eta dagokion zonakatze akustikoari.

Bigarrena.– Onespenaren erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta www.eibar.eus egoitza elektronikoa argitaratzea.

Hirugarrena.– Behin betiko onartutako Zarata Mapa, formatu digitalean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzara eta Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, analisi-dokumentuak eta lotutako dokumentazio grafikoa barne.

Eibarko Zarata Mapa jendearen eskura dago helbide honetan: <https://www.eibar.eus/eu/udala/sailak/ingurumena/zarata/zarata-mapa-2022>

Eibar, 2022ko azaroaren 8a.

Alkatea,
JON IRAOLA IRIONDO.